

eurodimentsioa

eranskinak



hezkontza



EUROPA ZER DEN

EUROPAREN GEOGRAFIA

Europako biztanle askok edo gehienek pentsatzen dute europarrak direla European bizi direlako. Alde horretatik begiratuta, Europa kontzeptu geografiko hutsa da. Europa berba kontinente baten izendapena da.

Egia esan, haren muga geografikoak, konbentzioz onartuak diren arren, ez dira oso zehatzak alderdi batzuetan (ikus mapa batzuk in M. Emerson "Redrawing the Map of Europe" 1998. Gaztelaniaz, "El nuevo mapa de Europa" Madril, 1999.).

Mendebaldean Atlantikoa da muga, baina XV. mendeaz geroztik ozeanoaren bi aldeon harremanak asko eta handiak izan dira. Ekialdean, berriz, Ural mendiak bide dira muga, baina Errusiaren inperioa Pazifikoraino hedatu da. Mediterraneo itsasoa, azkenik, joan-etorriko urrezko zubitzat jo daiteke (ikus James Joll, "Europe: an historian's view" in "History of European Ideas" I. bol. 1980. 7-19 orr.).

EUROPA KULTURA GISA

Kultura bitara aztertuko dugu.

- a) Europa kultura-osotasun bakartzat hartu izan da batzuetan. Halakoetan europar kultura-arloko zenbait obra eta joera aukeratu dira, hautatzailearen interes eta gustuaren arabera. Eta hautatutako kulturaki horiek goraiatu izan dira munduko sorkuntza hobe ezinak balira bezala.

Baina, maiz askotan europar kultura jasoaren bikaintasuna laudatu izan den arren, bestelako ikusmolderik ere bada. Adibidez, Edgar Morinek ("Penser l'Europe" 1987. 127-9. orr) esaten duenez, europar kultura dialogikoa da. Hots, izen handiko oinarriak —kristautasuna, humanismoa, arrazoia, zientzia— edukita, europar kulturaren osagaiak ideia horiek eta haien kontrakoak dira. Adibidez, erlijioa/zientzia, partikularra/unibertsala, tradizioa/bilakaera, erreakzioa/iraultza, norbanakoa/kolektibitatea eta abar.

Agian, oraingo europagintzan, arazo garrantzitsuenetako bat da zelan elkar egokitu Europa/lokala, garapen/justizia, diskurtsoa/praktika, binomioetako errealitateak.

Hori guztia dela-eta, ondorioztatu genezake europar kulturaren ezaugarri nabarmenetako batzuk kritika, zentzu historikoa eta utopismoa (oraindik burutu gabea gauzatu nahia, alegia) direla.

- b) European kultura asko izateari dagokionez, itxuraz behintzat, joera nagusia onartzea da.

Hala ere, kulturak banan-banan aztertu beharko lirateke bakoitzaren benetako egoera ondo ezagutu eta baloratzeko. Oso egoera ezberdinak ditugu. Adibidez, kultura frantses eta alemaniarraren arteko erlazioa nahiko harmonikoa da orain. Ezin dugu esan gauza bera euskal eta frantses kulturei buruz.

Badirudi ofizialki kulturak lurraldeei atxikita daudela, nahiz eta, gurean, adibidez, jende asko ahalegin handia egiten ari den etorkinen kultura errespetatuaz batera integrazioa bideratzeko.

Europak, nolabait ere, egitura juridiko-politiko egokia izan beharko luke kultura guztiak elkarrekiko errespetuan babestu eta sustatzeko. Baina hauxe da koska: zeintzuk diren guztiak eta nork-nola erabaki.



EUROPA NAZIOEN BATURA GISA

Testu askotan Europa definitzeko abiapuntua galdera bi hauek dira: `guk` zein ekarpen egin diogu Europari? `guri` zer eman digu Europak?

Hortaz, Europa kontzeptu gehigarritzat jotzen da, eta, horretara, estatu edota nazio guztiek banan-banan jaso eta eman dituztenen zerrenda moduko bat izango litzateke Europako ondarea. Italiak Errenazimendua, Britainia Handiak industrializazioa, eta abar (F. Pingel. op. cit. eta M. Fulbrook Introduction in "National Histories and European history" London, 1993. 1-17. orr).

EUROPA BALIOEN ARABERA

Batzuek diotenez, giza eskubideen eta askatasunen aldeko joerak definitzen du hobekien Europa.

Alor honetan, Aro Modernoko eta, batez ere, XVIII. mendeko Eskubide Deklarazioak mugarri ditugu. Bestalde, atal honetan aipatu behar ditugu gizakiek elkar ez zapaltzeko asmotan sortu diren pentsaera eta mugimenduak (marxismoa, anarkismoa, feminismoa...) beren argi-itzal guztiak gorabehera. Joera horien artean altermundialismoa eta oraingo ongizate estatuaren aldekotasuna ere koka daitezke.

EUROPA ERAKUNDEGUNE GISA

Horrelaxe definitzen du Europa Göran Therbon soziologoak ("Europe as issues of sociology" in (autore batzuk) "European Societies. Fusion or fission?" London, 1999. 19-29. orr.). Berak dioenez, II. Mundu Gerraren ondoren, European ondorio hau atera zuten: giza eskubideek arau gorenaz izan behar dute. Gainera, diosku European gizartekintza-arauak ere badirela: gizarte integrazioa sustatzen duen ongizate estatua (ongizate estatuz oso bestelako iritzia ikusteko, Diego Guerrero "Notas sobre la política económica neoliberal" eta Miren Etxezarreta in www.ucm.es/info/eurotheo/materiales/hismat/dguerrero2.htm).

G. Therbonen iritziz, horiek guztiak erakunde batzuek zaindu eta babestu behar dituzte. Erakundeok, nagusiki, Europar Batasuna eta Europako Kontseilua dira. Hortaz, G. Therbonek dio Europa estatuez gaineko erakunde multzo arauemailea dela, bestalde, etengabe eraikitzen ari dena.

EUROPA PROIEKTU GISA

Horrela definituz gero, europagintzaz barik, europagintzez hitz egin beharko genuke, proiektu ezberdinak baitaude, nahiz eta askotan hitz handi berberen gerizpean ageri zaizkigun.

Hitz horiek honako hauek dira: demokrazia, askatasuna, giza eskubideak, hiritartasuna, kulturaliztasuna, feminismoa, ongizate estatua, aukera berdintasuna, hazkundea, garapena eta abar.

Hortaz, berba horiek zelan gauzatzen diren, hots, benetan egiten dena, aztertu behar da, Europa norantz doan jakin dezagun.

EUROPA MERKATUA

Europar Batasunari dagokionez, dudarik gabe, merkatu komuna eratu nahi izan zen hasieran, hots, orain mende erditu bat.



Batzuek diotenez, EB orain ere ildo horretan ari da eratzen eta aurrera egiten. Ikuspuntu horretatik, EB globalizazioaren aurpegi europarra da eta eskubideei eta Europa sozialari buruzko diskurtsoak kapitalisten programa neoliberalak zuzitzeko eta onargarritzeko mozorro polita baino ez dira.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, programa horren aldeko eta aurkakoen zerrenda eta helbideak dituzu, adibidez, Belen Balanyá (eta beste) "Europe inc. Liaisons dangereuses entre institutions et milieux d'affaires européens" (Marseille, 2002) liburuan.

EUROPA HISTORIAN

Oraingo Europako egoera politiko, ekonomiko, kultural eta sozialak arazo eta galdera asko planteatzen dizkigu, neurri handi batean, indefinizio eta aldakortasuna direla bide. Horrek funtsean esan nahi du Europa egingai dela.

Hori guztia dela-eta, estatuen edota nazioen historia ez denez aproposa eta eraginkorra gure arazo guztien irtenbidea topatzeko (M. Fulbrook-ek dio "...Nazio-estatua agian ez da gai guztietarako analisi unitaterik egokiena" in "National histories and European history" London, 1993. 14. orr.), bestelako analisigai bat(zuk) aurkitu beharrean gaude. Horietako bat Europa bera izan daiteke.

Gauzak horrela, batzuek Europari guztiz ukatzen diote izaera historikoa, hala nola, E. Berl edo R. Sedillot-ek., "Inoiz ez da izan Europarik" esan baitzuen. Berak esan zuenez, izan diren Europak ez-osoak izan dira: erromatarra, napoleonikoa, hitleriarra...

Beste batzuek, berriz, europar iraganaren aldeko sutsuak dira. Adibidez, Denis de Rougemont-ek europar kultura jasoa aipatzen du eta, dioskunez, "urrutitik begiratuta, Europa nabarmen-nabarmen ageri da" (ikus paragrafo bi hauetako aipamenak in Charles-Olivier Carbonell "Una historia *europaea* de Europa", 2 liburuki, Bartzelona, 2000-1).

Azkenik, beste batzuek diotenez, Europa historiagatik beragatik existitzen da. Halaxe adierazten digu, esate baterako, Jean-Baptiste Duroselle-k ("Historia de los europeos" Madril, 1990).

Ildo horretan Europaren zenbait "aldi komun" edota joera orokor aipatu izan dira: monumentu megalitikoaren aldia, zelten garaia, erromatar inperioa, germaniarren garaia, kristandadea eta islama, feudalismoa, kapitalismoa, Errenazimendua, kolonialismoa eta inperialismoa, Zientzia Iraultza, Ilustrazioa, industrializazioa... (egia esan, askotan, elementu horiek edo horietako batzuk aipatzen direnean, Europako lurralde baten garrantzia besterik ez da nabarmentzen: Mendebaldeko Europarena, hain zuzen ere.)

Aldi eta joera horiek zeintzuk diren eta zer-nolako garrantzia duten eztabaidatzen dute etengabe historialariek. Beraz, arestiko zerrenda ez da zehatza, ezta behin betikoa ere, noski. Zerrendak ezertarako balio izatekotan, iritzi eta uste ezberdin asko dagoela erakusteko da egokia (ikus Conseil d'Europe-ren webguneko hezkuntza atalean "Learning and teaching about the history of Europe in the 20th century").

Jakina, adieraztekoa da berba horiek guztiek errealitate konplexu eta, maiz askotan, kontraesanek bete izendatzen dutela. Hortaz, alde batetik, batasuna gogorarazten digute, baina, bestetik, borroka eta gatazka ere bai. Ondorioz, denak kontuan hartu beharrekoak dira, errealitateak zentzu kritikoa izateko eta iritzi ezberdinak kontrastatzeko eskatzen baitu. Horregatik, esan genezake europar historia eta kultura malgutasunez definitu behar ditugula. Josep Fontanak ("Europa ante el espejo" Bartzelona, 1994. 10. eta 15. orr.) azaltzen digunez, oraingo Europa herri askoren eta haien ekarpenen emaitza dugu. Gauza bera esan dezakegu Europa osatzen duten herrien zein estatuen gainean ere (ikus orri ezin interesgarriago batzuk in Raymond Williams "Hacia el año 2000", Bartzelona, 1984. 223-230. orr.).

EUROPA PROIEKTU ETA LEGITIMAZIO BIDE

Oinarri historikoa hori dela jakinik, proiektu ezberdinak ari dira lehian, zein nagusituko: Europa kapitalista, Estatuena Europa, Europa federala, Herrien Europa, Ongizatearen Europa, bestelako mundua posible dela uste dutenen Europa...

Proiektu horiei buruzko idazkiak ugari dira. Pasarte honetan baten batzuk baino ez ditugu aipatu. Bastiaan van Apeldoorn-ek lau proiektu azaltzen dizkigu: neoliberala, merkantilista, sozialdemokrata eta hiruron nahasketa bat "embedded neo-liberalism" izenekoa (A. Bieler eta A. D. Morton "Social Forces in the Making of the New Europe" 2001. 70.-89. orr. Laburki 209. orr.). Ikuspegi aurrerakoi batzuk dituzu ondorengo lanetan: Catherine Samary "La nouvelle Europe entre OTAN et Union Européenne" in www.france.attac.org/i2257 eta Miren Etxezarreta "Panorámica crítica de la Unión Europea: un texto de divulgación" in www.ucm.es/info/nomadadas/6/etxezarreta.htm. Zuzenbide politikoaren ikuspegitik oso interesgarria duzu A. Cantarok egiten duen europar "konstituzioari" buruzko hausnarketa ("Europa sovrana", Bari, 2003).



Lehiak lehia direnez, askotan Europari buruzko diskurtsoak "zer" legitimatzaile gisa erabiliko dira. Adibideak ugariak ditugu: ugazabak langileak estutu nahian Europar Batasunaren zabalkundea dela-eta (ikus 2004-III-23ko egunkariak edo politikarien "norabide-aldaketa" in J. Fontana "La historia después del fin de la historia", Bartzelona, 1992. 139. orr.); estaturik gabeko nazioek estatuak gainditzeko (ikus E. J. Hobsbawm "An Afterword: European Union at the End of the Century" in "European Integration in Social and Historical Perspective", 1997. 271. orr.); Europa ekialdeko estatuak herriek liberalismoari aurre egiteko asmoa, Europan egonda errazagoa izango delakoan (ikus Catherine Samary "A l'Est comme à l'Ouest: quelle Europe?" in www.passant-ordinaire.com/revue/43-490.asp); eta abar.

